

## **MUko neskek zorte txarra izan dute Iruñan**

2012/02/29

MUko nesken futbol 7 taldea, Euskadiko unibertsitate kirol txapelketan irabazlea izan zenez, Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela irabazi zuten.

Asteazkenean jokatu zuten Espainiako txapelketarako lehenengo kanporaketa. Iruñan izan zen nafarroako neska txapeldunen aurka, eta ez zuten zorte onik izan.

Partidu parekatua izan zen hasieratik. MUko neskak aurreratu ziren markagailuan 1-2 emaitza lortuz. Nafarrak gogor aritu ziren berdinketaren bila, eta MUko atezainak hainbat gol aukera zapuztu arren, azkenean lortu zuten. Berdinketarekin, partidua edozeinek irabazi zezakeen, baina zorte txarra tarteko, MUko neskek beren atean gola egin zuten eta Nafarrak 3-2 jarri ziren aurretik. Hortik eta amaiera bitartean, gure neskak saiatu ziren partidari buelta ematen eta hainbat aukera ere sortu zituzten, baina ezin izan zuten markagailua mugitu eta emaitza Nafarren aldekoa izan zen.

Pena bat, baina zorionak eta eskerrik asko parte hartu duten neskei!!

